

MARRAZKIA, ESPAZIOAREN PARTITURA. MUGAPEKO MARRAZKETA-ESPERIMENTAZIOAN OINARRITUTAKO IKERKETA

Tesiaren egilea: Jon Martin Colorado

Unibertsitatea: Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Saila: Irudigintza Saila

Tesi-zuzendaria: Gentz del Valle de Lersundi Manso de Zuñiga

Tesiaren laburpena:

Teknika eta denbora mugatuotan abiatutako sormen-ariketa bezala planteatu dugu tesi hau. Batetik, Unibertsitateak doktore-tesia egiteko ezarritako lauzpabost urteko epea: 2012ko udazkenetik 2017ko udara. Bestetik, prozesu horren barruan zedarritutako 2013ko azaro eta 2015eko martxo bitartean, paper gaineko pintzelaz landutako tinta txinatar marrazkiak.

Ikerketa honen ekarpen nagusia marraztuz egindakoa da; aritzean bizi izandakoa, haren emaitzak eta horrek bideratutako gogoeta, erreferentzia, praktika, irakurketa, lotura... Marrazteko orduan ez dugu gairik ezarri, modu-estrategiak baizik, emaitza programatu barik. Erantzun zehatzen bilaketa kontzientea baino gehiago, galderak sortzen dituen ariketa izan da marrazketa; bide eta tresna. Ez da hau metodo zientifikoaren gertuko ikerketa, jakina.

Gure helburu nagusia ikerketa marraztuz gauzatzea izan da, hain zuzen; alde zuzeneko baldintzak ezarrita, ariketa bat planteatzea plastikak berak ekarpenak egin diezazkigun. Eraikitze-prozesu horretan badago, nolana ere, irudiaren egungo erabileraren gaineko elkarriketa pizteko asmoa —gaurko testuinguruan irudia oso erraz, abiadura bizian eta ezin konta ahala bider sortu eta partekatu baitaiteke—. Horri lotuta sorkuntza-prozesu hau eta bertan topatutako gakoak erakutsi, komunikatu eta ulergarri aurkezten saiatu gara.

Zazpi marrazki-txanpa izan dira guztira. Horiek idatzizko aldea egituratu eta, proiektua baino gehiago, bizirik dagoen prozesua deskribatzen duten 3 atal bereizi dituzte: zalantza-hasiera, mugimendu-erritmoa eta estruktura-barneratzea.

Ekintzaren pizgarri izateaz gain, *espazioa* marrazkien formetan islatu da. Horietako bakoitza espazio zehatz bati dagokio eta, hortaz, ikuspuntu eta estrategia zehatz bati.

Ikerketa hastean autonomotzat nuen marrazki bakoitza, gainontzekoekin erlazionatuta egonda ere, bere kabuz funtzionatzen zuen osotasuna. Gela zabal eta mahai handi batean lan egitean, haien orbanak, trazuak eta formak iradokitzaileagoak suertatu ziren, ordea, elkarren alboan. Folioa eraikuntza —marrazki— handiago baten adreilu —*modulu*— bilakatzen da orduan. Horixe da ikerketa honen aurkikunde nagusia. Aurrerantzean, ariketa moduluaren eta espazioaren arteko harremanean oinarrituko da, *eraikuntza modularren* bidez.

Moduluen bidezko eraikitze-prozesuak balioaniztasuna ematen dio ariketari, espazioarekiko moldagarria eta prekariora; azkar muntatu eta desmuntatzen diren eraikuntza iheskorak. Lan egiteko modu bera moldatu da fraktalaren ideiarda, osotasunari baino gehiago zatiari erreparatuz, horren isla zuzena. Gelaren espazio fisikoa, marrazkiaren barneko espazioa eta marrazkilariaren estrategia elkarrekin erlazionatuta eta elkarri eraginez.

Marrazkiekin egin duen bezala, moduluak ageriko konexio gabeko gogoeta ezberdinak batu izan ditu berean; arte, zientzia, ekologia edo filosofia esparrukoak, besteak beste. Horien muntaketa idazmena bera bezain konplexua izan da, edo konplexuagoa. Folioa modulutzat hartzen duen interkonektatze-dinamika. Alderantzizko disezioa. Batuta dagoena banandu beharrean, bananduta dagoena elkartzen duen jostura-lana. *Analisiak* proposatzen duenaren aurkako bidea, hortaz.